



2025/03 JARRAIBIDEA, ENPLEGU PUBLIKOAREN ZUZENDARIARENA, EAE-KO ADMINISTRATIO OROKORREKO KIDEGO ETA ESKALETAKO FUNTZIONARIOAK ADMINISTRATIO-EGOERAZ ALDATZEKO ETA ZERBITZU AKTIBORA ITZULTZEKO ESKABIDEAK IZAPIDETZEKO IRIZPIDEEI BURUZKOA.

Administratio-egoerak eta zerbitzu aktibora itzultzea Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen X. tituluan arautzen dira, karrerako funtzionarioentzat eta bitarteko funtzionarioentzat.

Alde batetik, jarraibide honen helburua da argitara ematea Enplegu Publikoko Zuzendaritzak administratio-egoerei eta zerbitzu aktibora itzultzeari buruz aplikatzen dituen irizpideak: gutxienez astebeteko iraupena, zatikako eszedentzien kasuan, eta egun baliodunean itzultzea, bai eta jurisprudentziaren arabera bitarteko langileei aplika dakizkiekeen administratio-egoerak ere.

Era berean, honen helburua da izapidetzea eguneratzea, elektronikoa izango baita aurrerantzean, eta irizpideak ezartzea eskaerak egiteko epeei buruz eta sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzia-egoeratik lanera itzultzeari buruz, hautaketa-prozesuaren amaierak eragindako egoera berriaren ondorioz.

Administratio-egoera aldatzeko eta zerbitzu aktibora itzultzeko eskaeren izapidetzea interesdunak hasten du, arauan aurreikusitako salbuespenak salbuespen, eta horretarako beharrezkoa da zerbitzuak ematen dituen edo funtzionarioa itzuliko den sailen eta Enplegu Publikoko Zuzendaritzaren jarduna, azken hori baita funtzionarioen administratio-egoerak deklaratzeko eskumena duen organoa.

Gaur egun, EAEko Administratio Orokorreko kidego eta eskaletako funtzionarioen administratio-egoera aldatzeko eta zerbitzu aktibora itzultzeko eskaerak egiteko, ez dago epe-erreferentzia espezifikorik urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaz harago, ebazteko epeari dagokionez, eta hori hiru hilabetekoa da, prozeduran aurreikuspen espezifikorik ez dagoenean.

Ildo horretan, oso garrantzitsua da eskaera-epeak arautzea, bai funtzionarioarentzat, bere eskaeren denborak behar pertsonalen arabera antolatzeko eta baloratzeko, bai Administratioarentzat, ahalik eta modurik eraginkorrean antolatu eta kudeatu ahal izan dezan lanpostua uzten duen langilearen absentsia edo pertsona bat behin-behineko atxikipenaren bidez itzultzea. Administratio-egoera onartzearen edo zerbitzu aktibora itzultzearen ondoriozko langile-aldaketek eragina dute lanaren antolamenduan eta zerbitzua ematerakoan, hainbat gaitan, hala nola egiteke dauden zereginak amaitzea, absentsia estaltzeko neurriak hartzea edota funtzionario berriei funtzioak eta zereginak betetzeko orientazioa ematea, eta horiei guztiei hobeto erantzun ahal izango zaie eskaerak aurreratuz gero.





Horregatik guztiagatik, gutxieneko epe bat arautu behar da administrazio-egoeraz aldatzeko eta zerbitzu aktibora itzultzeko eskaeretarako.

Era berean, eskaeretan gehieneko aurrerapen-epe bat ezarri behar da; izan ere, ohikoa da eskaerak izapidetzean interesdunak hasieran eskatutako data aldatzea edo eskaeran atzera egitea.

Azaldutakoa kontuan hartuta, gutxienez 10 egun balioduneko epea eta gehienez hilabeteko aurrerapena ezartzen da eskaeretarako, arrazoizkotzat jotzen baita prozeduraren kudeaketa eta izapidetzea eraginkorragoa izan dadin, bai eskatzailearentzat, bai administrazioarentzat.

Azkenik, enplegua finkatzeko hautaketa-prozesuak amaitu ondoren, bi eskala edo gehiagoko karrerako funtzionario asko daude EAEko Administrazio Orokorrean eskala haietako batean jardunean ari direnak eta beste eskaletan borondatezko eszedentzian daudenak, sektore publikoan zerbitzuak emateagatik. Hori dela eta, irizpide batzuk ezarri behar dira zerbitzu aktibora itzultzearen inguruan.

Sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzia-egoera lotuta dago administrazio honetako, beste administrazio bateko edo sektore publikoko beste kidego edo eskala batean zerbitzu-harremana egotearekin, eta kargu-uztea da zerbitzu aktibora itzultzeko eskaera egiteko arrazoa.

Era berean, ez da ahaztu behar ezen, araudiaren arabera, izendapen askeko lehiaketetan edo deialdietan parte hartzea dela lehentasunezko irizpidea zerbitzu aktibora itzultzeko, behin-behineko atxikipenaren aurretik, eta aurreikusita dagoela sektore publikoan zerbitzuak emateagatiko borondatezko eszedentzian dauden karrerako funtzionarioek parte hartzea.

Hori dela eta, sektore publikoan zerbitzuak emateagatiko eszedentzia-egoeratik behin-behineko atxikipenarekin itzultzeko izapideak egiteko, beharrezkoa izango da lan-harremana amaitu izana, hala eszedentzia ematea eragin zuen lan-harremana nola, aldatu bada, zerbitzu aktibora itzultzeko eskaera egiteko unean zegoena. Itzultzeko eskaeran, kargu-uztea eta eszedentzia-aldi osoa egiaztatu beharko dira, agiri bidez egiaztatu ere.

Lan-harremana indarrean dagoen kasuetan, lehiaketako eta izendapen askeko deialdietan parte hartuz gauzatu beharko da itzultzea.

Jarraibide honetan administrazio-egoera aldatzeko eta zerbitzu aktibora itzultzeko eskaerak izapidetzeko jasotako irizpideak honako hauek dira:

Lehenengoa.- Aplikazio-eremua.

1.1 Instrukzio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, haren organismo autonomoetako eta hari lotutako edo haren mendeko zuzenbide pribatuko organismo publikoetako



kidego eta eskaletako funtzionarioek administrazio-egoera aldatzeko eta zerbitzu aktibora itzultzeko egindako eskaerei aplikatuko zaie.

1.2. Administrazio-egoera hauek interesdunak eskatu beharko ditu, araudian adierazitako kasuetan izan ezik:

- Zerbitzu bereziak.

Zerbitzu berezien egoera ofizioz deklaratu da zerbitzu berezietara igarotzea eragiten duen egoera administrazio honetan sortzen denean. Gainerako kasuetan, interesdunak eskatuta deklaratu da.

- Beste administrazio publiko batzuen zerbitzuan.

Funtzionarioak transferentzia-prozesuen ondorioz igarotzen badira beste administrazio publiko batzuen zerbitzuko egoerara, egoera hori ofizioz deklaratu da. Interesdunak eskatuta deklaratu da gainerako kasuetan, hala nola lehiaketaren edo izendapen askearen prozeduren bidez lanpostu bat lortzen dutenean beste administrazio publiko batean, edo, enplegu publikoa antolatzeko plan batetik abiatuta sinatutako hitzarmen bat dela-eta langileak berresleitzeagatik edo administrazioen arteko mugikortasunagatik beste administrazio publiko batean integratzen direnean.

- Sektore publikoan zuzendaritza-kide publiko profesionalen zerbitzuak ematea.

- Norberaren interesarengatiko borondatezko eszedentzia.

Norberaren interesarengatiko borondatezko eszedentzia alderdi batek eskatuta deklaratu da. Nolanahi ere, norberaren interesarengatiko borondatezko eszedentzia deklaratu da, ofizioz, baldin eta, zerbitzu aktiboaz bestelako egoera batera igarotzea ekarri zuen arrazoia amaitutakoan interesdunek ez badute zerbitzu aktibora itzultzea eskatzen ezarritako epean.

- Borondatezko eszedentzia lanpostu- eta destino-erreserbaduna.

- Familia elkartzeko borondatezko eszedentzia.

- Senitartekoak (seme-alabak eta ardurapeko senideak) zaintzeko borondatezko eszedentzia.

- Genero-indarkeriagatiko borondatezko eszedentzia.

- Indarkeria terroristagatiko borondatezko eszedentzia.

- Borondatezko eszedentzia pizgarriiduna.

- Sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzia.

Eszedentzia ofizioz emango da baldin eta zerbitzuak emateari ekiten bazaio administrazio honetako beste kidego, eskala edo titulazio-eskakizunik gabeko taldekatze profesional batean edo



langile lan-kontratadun modura. Gainerako kasuetan, interesdunek eskatuta deklaratu da eszedentzia.

1.3. Zerbitzu aktibora itzultzea interesdunak eskatu beharko du, administrazio-egoera bakoitzerako ezarritako epeetan.

Bigarrena.- Eremu subjektiboa.

2.1 Karrerako funtzionarioei lehenengo apartatuan adierazitako administrazio-egoerak eta zerbitzu aktibora itzultzea aplikatzen zaizkie.

2.2 Bitarteko funtzionarioei aplika dakizkiekeen administrazio-egoerak eta egoera horietatik eratorritako zerbitzu aktibora itzultzeko kasuak hauek dira:

- Zerbitzu bereziak, bitarteko funtzionarioei zerbitzu bereziak aitortzeari buruzko Funtzio Publikoko sailburuordearen urriaren 17ko 4/2022 Jarraibidearen arabera.
- Senitartekoak (semea edo alaba eta ardurapeko senidea) zaintzeko borondatezko eszedentzia.
- Genero-indarkeriagatiko borondatezko eszedentzia
- Indarkeria terroristagatiko borondatezko eszedentzia

Hirugarrena.- Eskumena eta prozedura.

3.1 Enplegu Publikoko zuzendaria da funtzionarioen administrazio-egoerak eta zerbitzu aktibora itzultzea deklaratzeko organo eskuduna.

3.2. Administrazio-egoera aldatzeko eta zerbitzu aktibora itzultzeko eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira, Tramitagunen gaituko den prozedura espezifiko baten bidez.

Prozedura hori ezarri arte, eskabideak erregistro elektronikoro korrraren bidez egin beharko dira, eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailari (Enplegu Publikoaren Zuzendaritza) zuzenduko zaizkio.

3.3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa da. Eskaeraren erantzunik jasotzen ez bada, isiltasuna ezeslea izango da, eta aurkeztutako eskaera ezetsizat joko da.

Ebazpena elektronikoki jakinaraziko zaio interesdunari, NIRE KARPETAren bidez.

Laugarrena.- Administrazio-egoera aldatzeko eskaera.

4.1. Epe orokorrak.

Funtzionarioak eskaeran adierazi beharko du administrazio-egoera zer egunetatik aurrera aldatzeko eskatzen duen.



Eskatutako data baino gutxienez 10 egun baliodun lehenago eskatu beharko ditu interesdunak administrazio-egoerak, eta, gehienez ere, hilabete lehenago.

Hala ere, Enplegu Publikoaren Zuzendaritzaren iritziz presako eta salbuespenezko egoeraren bat gertatzen bada, eta, horren ondorioz, eskaera egin eta berehala edo 10 egun baliodunetik beherako epean onartu behar bada, gutxieneko epe hori salbuetsi ahal izango da, betiere egoera behar bezala egiaztatzen bada.

4.2. Seme-alabak eta ardurapeko senideak zaintzeko eszedentziarako epe espezifikoak.

Ardurapeko seme-alabak eta senideak zaintzeko eszedentziak modu jarraituan eska daitezke, gehieneko aldi osorako, edo zatika.

Seme-alabak eta ardurapeko senideak zaintzeko eszedentziak gehienekoa baino aldi laburragorako eskatzen badira, tarte bakoitzaren gutxieneko iraupena astebetekoa izango da. Inola ere ez da aldatuko eszedentziarako aurreikusitako gehieneko aldiaren amaiera-data.

Zatikako aldi bakoitza amaitu baino lehen, zerbitzu aktibora itzultzea eskatu beharko da, hurrengo egunean lanean hasteko.

4.3.- Ondorioak.

Administrazio-egoerek haiek emateko ebazpenean zehazten den egunetik aurrera izango dituzte ondorioak. Langileak lanpostuan jarraitu beharko du, harik eta jakinarazi arte baimena eman zaiola eta ondorioak noiz izango dituen, edo ukatu egin zaiola.

Bosgarrena.- Zerbitzu aktibora itzultzea.

5.1. Zerbitzura itzultzeko eskaera eskatutako ondorio-data baino gutxienez 10 egun baliodun lehenago egin beharko du interesdunak, eta, gehienez ere, hilabete lehenago.

Nolanahi ere, eskatutako itzulera-datak bat etorri beharko du interesdunaren lan-egutegiaren arabera benetan zerbitzuak eman daitezkeen egun baliodunekin, salbu eta administrazio-egoeran egoteko gehieneko epea amaitzen bada.

5.2. Egoera bakoitzerako ezarritako gehieneko aldia igaro ondoren edo kausa amaitu ondoren zerbitzu aktibora itzultzeko eskaerarik egiten ez bada, karrerako funtzionarioa interes partikularragatiko borondatezko eszedentzian dagoela deklaratu da ofizioz, eta gutxienez bi urte jarraitu eman beharko ditu egoera horretan, itzultzeko eskaera egiteko ezarritako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.



Bitarteko funtzionarioen kasuan, bitarteko izendapena kenduko da uko egiteagatik, eta horrek esan nahi du, araudiaren arabera, hamabi hilabetez lanerako prest ez egotearen egoerara igaroko dela osatzen dituen lan-poltsa guztietan.

5.3. Enplegu Publikoko zuzendariaren ebazpen baten bidez erabakiko da zerbitzu aktibora itzultzea. Itzultzen hori ebazpenean erabakitzen den egunean izango da, eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

5.4. Lanpostu-erreserbarik ez duten pertsonak zerbitzu aktibora itzultzen badira, behin-behineko atxikipenean sartzeak ez du berehalako ondoriorik izango. Administrazioak baldintzak betetzen dituen bere kidego edo eskalako lanpostu bat bilatu behar du lanpostu zerrendan, Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioak behin-behinean atxikitzeko prozedura arautzen duen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko ekainaren 28ko Aginduan ezarritako prozeduraren arabera.

5.5. Administrazio-egoerak araudian aurreikusitako gehieneko epea baino epe laburragorako ematen badira eta pertsonak ez badu zerbitzu aktibora itzultzeko eskatzen, luzapena egingo da gehieneko epera arte, eta interesdunari jakinaraziko zaio.

Seigarrena.- Zerbitzu aktibora itzultzea sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentziako administrazio-egoeratik

6.1. Sektore publikoan (EAEko Administrazio Orokorreko edo sektore publikoko beste administrazio eta entitate batzuetako beste kidego, eskala edo lan-kategoria batean) zerbitzuak emateko borondatezko eszedentziako administrazio-egoeratik zerbitzu aktibora itzultzeko, funtzionarioek kargua utzi eta 30 egun naturaleko epean egin beharko dute horretarako eskaera.

Eskaeran, eszedentzia eragin zuen zerbitzu-harremana amaitu dela egiaztatu beharko du, edo, gerora aldaketarik izan bada, zerbitzu aktibora itzultzeko eskatzean azkena izandako zerbitzu-harremana amaitu dela.

Era berean, eszedentziako denbora guztia administrazio publiko batean edo sektore publikoko entitate batean lanean aritu dela justifikatu beharko du, emandako zerbitzuen ziurtagiri baten edo lan-bizitzaren txosten baten bidez.

Egiaztatzen bada eszedentzia-aldian zerbitzu-harremana eten dela eta administrazio publiko batean edo sektore publikoko erakunde batean ez dela prestazio berririk hasi kargua utzi eta 30 egun naturaleko epea amaitu baino lehen, interes partikularragatiko borondatezko eszedentzia-egoerara igaroko da., eta gutxienez bi urte jarraian eman beharko ditu, itzultzeko eskaera egiteko ezarritako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaera aurkeztean bi urteak igaro badira, zerbitzu aktibora itzultzeko eskaera izapidetuko da.



6.2. Funtzionario hori behin-behinean atxikiko da, Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioen behin-behineko atxikipenaren prozedura arautzen duen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko ekainaren 28ko Aginduan ezarritako irizpideekin bat etorritz.

6.3. Karrerako funtzionario edo langile lan-kontratadun finko gisa sektore publikoan zerbitzuak emateagatik borondatezko eszedentzian dauden langileak, eszedentzia eragin zuen zerbitzu-harremana amaitzen ez den bitartean, lehiaketan edo izendapen askeko deialdian parte hartuz itzuli beharko dira, eta araudian eskatzen diren parte hartzeko baldintzak bete beharko ditu.

Zazpigarrena.- Ondorioak eta publizitatea

Jarraibide hau Jakinan eta EIZUn (Enpleguaren ataria) argitaratuko da, eta argitaratzen den egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

NEKANE COBOS SALINAS
ENPLEGU PUBLIKOKO ZUZENDARIA